

Saludo Presidente SVN

Agurra lehendakari

Javier Korta
Presidente SVN

Estimadas socias y estimados socios,

La edición del *Boletín* constituye siempre una oportunidad para poner voz y letra a la reflexión sobre el año transcurrido, sobre nuestras actividades y, por qué no, incluso también sobre nuestra razón de ser en esta sociedad a la que debemos nuestro servicio.

Aunque esta publicación refleja bien las actividades científicas promovidas y llevadas a cabo por nuestra Sociedad en este periodo, no renunciamos al objetivo de ampliar su contenido, tanto cuantitativa como cualitativamente, incorporando trabajos originales, razón por la que, desde esta atalaya os animo a la participación en esta actividad. Es una tarea no exenta de dificultades, pero creo firmemente en su valor, no solo curricular –sobre todo para los MIR– sino como punto de encuentro en el que poder compartir nuestras inquietudes científicas o, simplemente, preocupaciones en torno a cuestiones más prácticas de nuestra labor diaria.

Vinculado de alguna manera con lo anterior, me alegra comunicar la constitución de dos grupos de trabajo (GT) que, con gran ímpetu y voluntad, con unos objetivos claramente establecidos en su memoria fundacional, trabajan en aspectos concretos de la especialidad. Se trata de los GT de Alergología y de Neumología, que con sus aportaciones (protocolos, recomendaciones, etc., además de potenciales estudios multicéntricos), habrán de contribuir a mejorar y enriquecer nuestro quehacer diario.

Con nuestra calurosa bienvenida a ambos grupos, os aliento a seguir el camino emprendido por ellos, reiterando todo el apoyo y colaboración de la junta directiva.

La presentación del libro “Ars pediátrica compostelana y vasco-navarra” de nuestro

Bazkide agurgarriak,

Aldizkariaren edizioa aukera egokia izaten da beti joan den urteari, gure jardueri eta, zergatik ez, gure zerbitzuen xede den gizarte honetan izateko dugun arrazoari buruzko gogoetari ahotsa eta letra jartzeko.

Argitalpen honek ongi islatzen ditu gure Elkartek aldi horretan sustatu eta egin dituen zientzia-jarduerak, baina ez diogu uko egin nahi edukia kuantitatiboki zein kualitatiboki zabaltzeko helburuari. Horretarako, lan originalak jaso nahi ditugu, eta, horregatik, jarduera horretan parte hartzera animatu nahi zaituztet talaia honetatik. Ez da zailtasunik gabeko zeregina, baina zinez sinesten dut haren curriculum-balioan –BAME-entzat batez ere– eta gure kezka zientifikoak edota, besterik gabe, gure eguneroko laneko alderdi praktikoagoen inguruko kezka elkarri adierazteko topagune gisa duen balioan.

Aurrekoarekin nolabait ere lotuta, atsegin handiz jakinarazi nahi dizuet bi lantalde eratu direla eta espezialitateari lotutako alderdi zehatz batzuetan dihardutela, kemen eta borondate handiz eta memoria fundazionallean argi eta garbi ezarritako helburuekin. Hain zuzen ere, Alergologiako eta Pneumologiako Lantaldeak dira. Haien ekarpenek (protokoloek, gomendioek edota zentro askoren arteko azterlanek) gure eguneroko lana hobetzen eta aberasten lagunduko digute.

Bi taldeei ongi etorri beroa egin ondoren, haien bidetik jarraitzera animatu nahi zaituztet; Zuzendaritza Batzordearen babesa eta laguntza izango duzue.

Gure bazkide eta lankide Augusto Borderas entzutetsuaren “Ars pediátrica compostelana y vasco-navarra” liburuaren aurkezpena eskualde-eremua gañditu duen gertakari garrantzitsua izan da, eta, ziur diotsuet, merezi du liburu horretan murgiltzea.

insigne socio y compañero Augusto Borderas ha sido un hecho destacado que ha trascendido el ámbito regional y en el que, os aseguro, merece la pena adentrarse.

Nos encontramos inmersos en la transformación de la página web y también en conseguir una incorporación real a las redes sociales. Es una asignatura pendiente que esperamos sea una realidad en próximas fechas.

Es también voluntad de la junta impulsar Topaketak, el encuentro de pediatras euskaldunes que anualmente y de forma itinerante celebra su sesión científica.

Como sabéis, en el Congreso Anual de la AEP, celebrado en Santiago de Compostela, tras el proceso electoral correspondiente, se produjo la renovación del Comité Ejecutivo. Quiero aprovechar esta ocasión para, en nombre de la Sociedad Vasco Navarra de Pediatría/Euskal-Herriko Pediatría Elkarte (SVNP/EHPE), mostrar públicamente mi agradecimiento a la junta saliente, especialmente al que fuera su presidente, el profesor Serafín Málaga, por su esfuerzo, dedicación y delicadeza en todo el proceso de cambio y adaptación estructural que promovió.

Así mismo, la SVNP da la bienvenida al Comité entrante, presidido por la Dra. Mellado, con el que ya hemos comenzado a trabajar y tratar diversos temas. Pero, antes de cualquier consideración, hay que felicitar por la presencia, como tesorero, de uno de nuestros socios en dicho comité, el guipuzcoano Dr. Pedro Gorrotxategi. Sin duda, es una buena noticia, no solo por su reconocimiento, sino porque nos permitirá una mayor cercanía y colaboración en las actividades que se lleven a cabo.

También es una noticia destacable la ampliación de la Junta directiva en la que, como sabéis, se integran las sociedades de especialidades.

Una de las prioridades que el comité ejecutivo de la AEP tenía planteadas era la adecuación de la base de datos de todos los socios a nivel nacional. La respuesta de los pediatras al requerimiento de participación en la actualización de datos ha sido muy positiva por lo que, en nombre de la AEP y de la SVNP, quiero expresar el agradecimiento más sincero a quienes habéis contribuido a ello.

En la primera reunión de la ampliada Junta Directiva de la AEP, en boca de su presidenta, quedaron patentes las grandes líneas estratégicas. En primer lugar, el principio irrenunciable de la defensa del modelo pediátrico actual y el reconocimiento y desarrollo de las especialidades. Se van a crear dos grandes grupos de trabajo que elaborarán informes técnicos para defender este pensamiento ante las instituciones correspondientes. La SVNP está presente en este proyecto colaborando en esta importante acción estratégica.

Hay también por parte del comité ejecutivo una voluntad expresa de potenciar los grupos de trabajo y comités, así como de la promoción de la formación e investigación (creación de plataforma a tal efecto, desarrollo de *Continuum*, etc.), con el que estamos totalmente en consonancia. Otros muchos asuntos estructurales, organizativos e institucionales, imposibles de señalar en este espacio, son también motivo de preocupación y arduo trabajo.

Volviendo al ámbito regional que nos compete más directamente, hay que felicitar por la puesta en marcha de las ofertas públicas de empleo

Webgunea eraldatzen ari gara, eta sare sozialetan benetan txertatu nahi dugu. Oraindik konpondu gabeko kontua dugu hori, eta aurki lortzea espero dugu.

Batzordeak, halaber, pediatria euskaldunek beren bilkura zientifikoa egiteko urtean behin eta leku desberdinean egiten dituzten Topaketak bultzatu nahi ditu.

Jakingo duzunenez, Espainiako Pediatría Elkarteak (AEP) Batzorde Betearazlea berritu zuen Santiago de Compostelan egindako urteko biltzarrean, bidezko hauteskunde-prozesuaren ondoren. Aukera hau baliatu nahi dut Euskal Herriko Pediatría Elkartearen (SVNP/EHPE) izenean kargua utzi duten batzordekideei nire esker ona jendaurrean adierazteko, eta, bereziki, presidente izan zen Serafín Málaga irakasleari, egiturak aldatzeko eta egokitzeko sustatu zuen prozesu osoan erakutsitako ahalegin, ardua eta adeitasunagatik.

Euskal Herriko Pediatría Elkarteak, halaber, ongietorria egin nahi dio Mellado doktoreak zuzenduko duen Batzorde berriari. Dagoeneko, hasi gara harekin lan egiten eta zenbait gai aztertzen. Nolanahi ere, beste ezer baino lehen, poztu beharra dago gure bazkideetako bat –Pedro Gorrotxategi doktoea– Batzorde horretako diruzaina izango delako. Oso berri ona da, zalantzarik gabe, errekonozimenduagatik beragatik ez ezik, egingo diren jardueretan hurbiltasun eta laguntza handiagoa ahalbidetuko digulako ere bai.

Albiste azpimarragarria da, halaber, Zuzendaritza Batzordearen zabalkuntza. Izan ere, jakingo duzunenez, espezialitateei lotutako elkarteak sartuko dira.

AEPren Batzorde Betearazleak planteatuta zituen lehenatasunetako bat Estatuko bazkide guztien datu-basea egokitzea zen. Pediatrek datuak eguneratzen parte hartzeko eskaerari eman dioten erantzuna oso positiboa izan da. Horregatik, AEPren eta EHPEren izenean, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizuet horretan lagundu duzuenoi.

AEPren Zuzendaritza Batzorde berriaren lehen bileran, presidentek agerian utzi zituen ildo estrategiko nagusiak. Lehenik eta behin, egungo pediatria-ereduaren defentsaren printzipio utziezina eta espezialitateen aintzatespena eta garapena. Sortuko diren bi lantalde handik pentsamendu hori bidezko erakundeen aurrean defendatzeko beharrezkoak diren txosten teknikoak landuko dituzte. EHPE proiektu horretan sartuta dago, eta ekintza estrategiko garrantzitsu horretan laguntzen ari da.

Batzorde Betearazleak lantaldeak eta batzordeak indartzeko eta prestakuntza eta ikerketa sustatzeko (horretarako plataforma sortzeko, Continuum ataria garatzeko eta abar) esanbidezko borondatea agertu du, eta gu guztiz bat gatoz horrekin. Nolanahi ere, badira kezka eta lan nekeza sortzen duten eta hemen azaldu ezin ditugun beste egitura-alderdi, antolamendu-alderdi eta erakunde-alderdi asko.

Gurekin zuzenago lotuta dagoen eskualde-eremura itzuliz, poztu beharra dago Nafarroan zein Euskadin enplegu publikoaren eskaintzak (EPE) abian jarri direlako. Hutsuneekin bada ere (batzuk nabarmenak), prozesuak aurrera doaz, eta arintasun handiagoa eskatzen dugu haiek aplikatzeko.

Oso kezkarria da lehen mailako arretaren inguruko egoera. Izan ere, egoera hori ez da behar bezala konpontzen ari, eta pediatria-espezialitateei eman beharreko zeregina erabaki gabe dago oraindik. Ildo horretan, AEPren irizpideei jarraikiz, alde batetik pediatrik lehen mailako arretan txertatzeko neurriak hartu behar dira, eta, bestetik, pediatria-espezialitateak benetan aintzatesteko erabakiak (hala nola ospitaleko plazak zehazteko erabakia).

(OPE), tanto en Navarra como en el País Vasco. Con deficiencias, alguna de ellas manifiesta, van avanzando los procesos para cuya aplicación reclamamos mayor celeridad.

Preocupa extraordinariamente la situación en torno a la atención primaria, que sigue sin resolverse adecuadamente, y continúa pendiente el papel que ha de otorgarse a las especialidades pediátricas. En este sentido, en consonancia con el criterio de la AEP, es preciso tomar, por un lado, medidas que faciliten la incorporación de los pediatras a la atención primaria y, por otro, decisiones tendentes al reconocimiento real de las especialidades pediátricas, como las de perfilar las plazas hospitalarias.

Conscientes de que las soluciones a estos problemas no son fáciles, consideramos una condición necesaria la participación de todos los agentes implicados, por lo que, desde aquí, una vez más, reiteramos nuestra disposición a colaborar con las instituciones.

Finalmente, quisiera expresar mi agradecimiento a quienes conformáis la SVNP/EHPE, por el esfuerzo con que contribuís a que esta Sociedad siga en marcha animando al conjunto de los pediatras vascos y navarros a seguir haciéndolo, si cabe, con una mayor participación.

Saludos cordiales y un abrazo.

Donostia, diciembre de 2017.

Arazo horien konponbideak errazak ez direla jakinik, gure ustez ezinbesteko baldintza da inplikaturako agente guztiek parte hartzea. Horregatik, erakundeekin lankidetzan jarduteko prest gaudela adierazi nahi dugu berriz ere.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkizuet SVNP/EHPE osatzen duzuenoi, Elkartek aurrera jarraitzeko egiten duzuen ahaleginagatik, eta Euskal Herriko pediatria guztiak animatu nahi ditut horretan neurri are handiagoan parte hartzera.

Bihotz-bihotzez, besarkada bero bat guztioi.